

MINTZOERA

MAITAKITSUA

Arroz atozkit nere izar ederra! ¡Nere biotzeko maitati zoragarriya! Eseri zaitia emen, eta aditu zadazu nik biyotzaren aginduz esaten dizudana.

Urte muga orain da, nik zugana nere begirakuna zuzenbidetu nubela, guztiz maitarotsu; bañan eziñ mintzatuak menderatu ninduen egun artan, non igaro detan urte osua zuri mingañez ezer esan gabe; gaur mintzatu nai nuke bear dan eran eta lasakeri osuan.

Jakiñian egongo zera noski, amoriyua dala bide lasai eta zabalaren bearrekua, bada lasaitasun osuak ematen ez bazaizka amoriyuari, bere ezetasunak usteltzen ditu eutzkaitzat dauzkan zaiñ guztiyak, non etetzen diran igartzeko zuaitz tantai zumo galdu bat bezela, eta biyotza gelditzen da enbor igar, adar gabe baten gisan, bizitasun dena galdu-rik, guztiz zoilldua.

Amoriyo edo maitetasuna, eziñ neurtu leike kalartzu batekin; aiñ aundiya da, egiyazkua bada, zeren eskatzen duben toki, neurri kabida ugaritsukua.

Argatik izaten ditut biyotzaren astiñ aldi aundiyak, eta gelditzen

naiz askotan kemen guztiyak galdurik bezela, asnasik eziñ arturik itozkeko zoriyan.

Zuri dizudan amoriyuagatik, biyotza daukat bere lekutik irten nayan, bañan zuk jartzen badiyozu ezi sendo bat, geldituko da bere leku maitarotsuan auzotar guztiyen laguntza onian.

Aspaldichuan arki naiz, Bilinch zanak edaten zuben iturriko ura edanik; (da esatia) maitasun gozozko ore eztsua biyotzez chupatu edo miasturik.

Oroitzen naiz damacho bati jaun onek bere maitasun ugaritsuaren bitartez, nola eta zer gisatan esan ziyozkan itz barrendikako zakonkitrotsu maitakirozko eder berdiñ gabe ayek.

Baldiñ nai badezu jakiñ, ez badakizu ere, kantari esango dizkitzut biyotzak laguntzen ditan egokitasun osuarekin.

¡Zer ote da graziyan
norbait erortzia!
zu zerala meriyo
¡ai, au erotzia!
frankotan gertatu zait
gogora etortzia,
kanpantorrian gora
korrika iyotzia;
ta zure alabantzan
kanpanak jotzia.

Orra; zenbateraño lezakien amoriyuak; au da gure bizitzaren zuzen ardatzik kementsuena, onek nai duben guztiya eragiñarazitzen digu; orregatik ni ere nago mendean artua, eriotzkiñ bat bat borrreruak urkabea bezela, eta nai nuke baldiñ baderitzazu, zure itz bat askida, eta katarte ontatik askatzea.

Esango dezu zeregan: nik ez dakit nola egiñ nezakean zuk eskatzen dirazun mesedea.

Bada, chit erresa dala deritzot, itz bat bakarra aski dala esan dizut, eta naiera osokua bazera, egiñ zenezake.

Zure semeak gera, zu, gure Ama: luzaro samar ontan minchu antzean bizi zerana.

¡Zabal itzazu begi eder mintzakitzu oriyek!

¡Eta zabal arazi zaizkatzu aritz eder Guernika-koari bere adarrak, ezkurra ugaritzu eman dezan, ez onerako bakarrik, baizik, munduaren borobilltasun guztirako.

Eman da zabalzazu
munduan frutua.

Zabal bitez gure ama maitiarentzat urrutiyetarañoko bidiak, eta gu ill da gero ere Bizi bedi euskera.

JUAN IGNACIO URANGA.

